



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Urteko Txostena 2008

D/60/2008 Eskaera

EBAZPENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO DEFENDATZAILEARENA; HORREN BIDEZ, 2008KO LIBURU AZOKAREN 43. EDIZIOA IRAGARTZEKO KARTELEAN GEREDIAGA ELKARTEAK SEXU ARRAZOIENGATIKO DISKRIMINAZIOA EGIN DUELA EZESTEN DA

Aurrekariak

Lehena.- 2008ko urriaren 17an, "Gizon ikusezina Azokan" kartelak eragindako D/60/2008 salaketa iritsi zen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundera, Durangoko 2008ko Liburu eta Disko Azokaren 43. Edizioaren publizitatean emakumeen ikusezintasuna dagoela argudiatuz.

Bigarrena.- 2008ko urriaren 21ean, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen antolaketa eta funtzionamenduaren Arautegia onartzen duen ekainaren 13ko 119/2006 Dekretuaren 11. artikulua esleितutako ahalmenak betez, Durangoko 2008ko Liburu eta Disko Azokaren 43. Edizioa iragartzeko Kartelean emakumeen ikusezintasunak eragindako sexu-arrazoiengatiko usteko diskriminazioa dela medio ofi ziozko ikerketa-prozedurari hasiera ematea erabaki da, eta 15 eguneko epea eman zaie egokitzat hartzen duten alegazio, dokumentu eta informazio oro egiteko eta aurkezteko, baita frogatzeko aldia ireki dezaten eskatzeko eta egokitzat hatzen dituzten frogabideak proposatzeko ere.

Hirugarrena.- 2008ko azaroaren 13an, Gerediaga Elkartearen lehendakariaren, alegazioen idazkia iritsi zen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen Egoitzara. Idazki horretan aurkeztutako dokumentu pribatuak espedientean sartzea eskatzen du, eta Durangoko Liburu eta Disko Azokaren 43.

edizioaren kartel irabazlearen epaimahaikideen eta egilearen lekuko-froga egiteko proposamena aurkeztu zuen. Idazki horretan honako alegazio hauek aurkeztu ziren:

1. 43. Edizioaren txartel irabazlea 5 lagunek (4 gizon eta emakume bat) osatutako epaimahai batek hautatu zuen. Epaimahaiko kideak eremu artistikoan, kulturean eta diseinu grafi koan duten gaitasunarengatik eta esperientziarengatik aukeratu ziren. Epaimahai horrek kartel hori irabazle izan zedin erabakitze erabilitako irizpide artistikoak subjektiboak izan ziren. "Gizon ikusezina azokan" lanaren leloa egileak egile-eskubide atxikietan babestutako bere lanari jarritako izenburua da. Izenburu hori H.G. Wells idazlearen "Gizon ikusezina" eleberrian oinarrituta dago. Izenburu hori ez da kartelaren leloa, ezta Durangoko Azokarena ere, eta, gainera, ez da kartelean azaltzen.

2. Txapelari buruzko iritziak. A)Gerediaga Elkartearen ustez, txapela gizonen osagarri tradizional gisa –soilik eta derrigorrez gizon euskaldunaren irudiari lotuta– ez da errealitatera egokitzen.

Gaur egun, txapela osagarri gisa erabiltzea, nahiz eta beste garai batzuekin alderatuta gaur egun oso gutxi erabiltzen den, ez dago gizonetzko landa-eremuari lotuta, orain dela urte batzuk bezala, baizik eta gaur egun emakumeek nahiz gizonak erabiltzen dute beren estetikaren osagarri gisa hiri-ingurunean ere.

B)*Women's Secret* emakumezko barruko arroparen enpresaren egungo publizitatearen argazkiak erantsi dira, eta argazki horietan ikusten da emakumeak txapelak jantzita azaltzen direla. Halaber, Ertzaintzako emakumeen uniforme ofizialaren argazkiak txertatu dira, emakume horiek ere txapela gorria erabiltzen dute. Azkenik, Durangoko Azokaren 40. edizioa iragartzen duen kartela aurkeztu dute txapela gizonak nahiz emakumeak erabiltzen dutela frogatzeko; izan ere, kartel horretan txapela duen emakume baten irudia azaltzen da.



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

C)Berriro ere esan dute ez dela egia txapela gizonetzkoen osagarri tradizionala denik eta emakumea baztertzeko duenik. Adibide gisa, prakak erabilera aipatzen dute; izan ere, prakak, garai batean, tradizionalki soilik gizonetarako erabiltzen zituzten.

3. Betera ere eta entzungailuei dagokienez, adierazi dute ez dakitela zertan laguntzen dioten emakumearen ustezko diskriminazioari.

Laugarrena.- 2008ko abenduaren 5ean, ikerketa-espeditatearen izapidegilearen erabakia igorri zen. Erabaki horren bitartez, Gerediaga Elkarteak eskatutako frogaren praktika ezesten da prozeduraren xedea ez delako epaimahaiaren zeregina epaitzea, ezta egilearen sormena ere.

Bosgarrena.- 2008ko abenduaren 29an idazki bat iritsi zen Berdintasunerako Defentsa Erakunde honetara, proposatutako lekuko-froga ukatzeari buruzko azalpenak eskatzeko. Era berean, instrukzio egintzari jar dakizkiokeen errekurtsoei buruzko informazioa eskatu zuten. Seigarrena.- Urtarrilaren 1 6an, aurreko akordioa, hots, proposatutako lekukofrogaren praktika ukatzen zuena atzera botatzen duen akordioa bidali zen Gerediaga Elkartera; eta, hortaz, proposamena onartu egin zen.

Zazpigarrena.- Proposatutako sei lagunei jakinarazi zitzaion 2009ko urtarrilaren 27an lekuko-froga egingo zela Berdintasunerako Defentsa Erakundearen egoitzan.

Zortzigarrena.- 2009ko urtarrilaren 27an, deitutako artetik ez zen bakar bat ere aurkeztu lekuko-froga.

Bederatzigarrena.- 2009ko urtarrilaren 30ean, Durangoko 2008ko Azoka iragartzen duen Kartelari dagokionez gauzatutako jardunei eta hartutako erabakiei buruzko informazioa eskatzeko idazki bat igorri zen Durangoko udalerriko Berdintasunaren Batzordera eta Kontseilura. Halaber, "Bilgune Feminista" Elkarte Feministari eta "Andereak Feministak" elkartei gai horri buruzko informazioa eskatu

zitzaion.

Hamargarrena.- Gaur egun, soilik "Plataforma andereak" erantzun du esanez Durangoko Udalaren Berdintasunaren Kontseiluko kide gisa hartu zutela parte, eta Kontseilu horretan Gerediaga Elkartera idazki bat bidaltzea erabaki zela.

Hamaikagarrena.- 2008ko abenduaren 10ean, eta 119/2006 Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoaren indarrez, Gerediaga Elkarteari entzute-tramiteari hasiera eman zitzaion, egindako ikerketa-eginbideetarako sarbidea izateko eta, komenigarritzat jotzen badu, espeditatearen ebazpenean kontuan izan beharreko alegazioak, dokumentuak edo bestelako elementuak aurkezteko.

Hamabigarrena.- 2009ko martxoaren 20ean, Gerediaga Elkarteak igorritako eskutitza batean, 2009ko Urtarrilaren 15eko Akordioan onarturiko lekuko froga ez burutzeagatik defentsa gabezia alegatzen du.

2009ko Martxoak 28an, Gerediaga Elkarteari, Elkarte berak, lekuko bidezko froga gisa proposaturiko pertsonen eginiko deialdien kopiak jakinarazten zaizkio. Deituriko lekukoak ez ziren agertu.

Zuzenbideko Oinarriak

Lehena.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako funtsezko eskubideari dagokionez.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan aitortzen den printzipio juridiko unibertsala da. Testu horien artean, emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak desagerrarazteari buruzko Konbentzioa dago. Konbentzio hori Nazio Batuen Batzar Nagusiek onartu zuten 1979ko abenduaren 18an eta Espainiak 1983an berretsi zuen.

Berdintasuna, halaber, Europar Batasuneko funtsezko printzipioa da. Amsterdameko Ituna indarrean jarri zenetik, hots, 1999ko maiatzaren 1etik aurrera, emakumeen eta



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

gizonen arteko berdintasuna eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerraraztea Europar Batasuneko eta horren kide direnen politika eta ekintza guztietan bildu behar diren helburuak dira.

1978. urteko Espainiako Konstituzioak 14. artikulua berdintasun-printzipioari eskaintzen dio, eta honako hau ezartzen du: *“Espainiarrak legearen arabera berdina dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, (...) sexu-arrazoia, (...) direla medio”*.

Emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren (hemendik aurrera 3/2007 Lege Organikoa) 4. artikulua honako hau ezartzen du: *“Emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna ordenamendu juridikoaren printzipio informatzailea da, eta, horregatik, arau juridikoak interpretatu eta aplikatzerakoan sartu eta kontuan hartuko da”*.

Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak (aurrerantzean, 4/2005 Legea) mekanismo eta neurri zehatz batzuk planteatzen ditu, euskal herri-administrazioek eragin handiagoko politikak eta jardunak abiaraz ditzaten lortzeko, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren fenomenoak – egiturazkoa eta unibertsala – gizartetik desagerrarazteari begira. Mekanismo horien artean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortu du, sexu-arrazoiengatik diskriminazio-egoeren aurrean herritarrak defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen arteko tratua-berdintasunaren printzipioaren betetzea sustatzeko organo gisa (63.1 artikulua). Defentsa Erakundearen zereginetako bat ikerketak egitea da, sexua dela-eta gerta daitezkeen diskriminazio-egoerak –zuzenekoak edo zeharkakoak– argitze aldera (64.1 a artikulua).

Kasu honetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeari dagokio argitzea Gerediaga Elkarteak sexu-arrazoiengatik diskriminazioa egin ote duen

Durangoko 2008ko Liburu eta Disko Azokaren 43. Edizioa iragartzeko “Gizon ikusezina azokan” Kartelak emakumeak ikusezin bihurtzen dituelako. Kartel horretan, tradizionalki gizonena izan den osagarri bat, hots, txapela, euskal kulturaren sinbola da.

Bigarraena.- Kulturak eta komunikabideek desberdintasuna eta mendekotasuna iraunarazten duten genero-rolen eta – estereotipoen transmisioan duten zereginari lotuta.

Emakumearen aurkako diskriminazio modu guztiak desagerrarazteari buruzko Konbentzioa –Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1979ko abenduaren 18an onartu zuen, eta 20 herrialdek berretsi ondoren, 1981eko irailaren 3an nazioarteko tratatu gisa jarri zen indarrean– Espainiak 1983an berretsi zuen. Konbentzioaren espirituaren sorrera fedea oinarritzeko giza eskubideetan, gizakiaren duintasunean eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubide-berdintasunean berresteko Nazio Batuek dituzten helburuetan dago. Konbentzioak berdintasunaren esanahia definetzen du eta berdintasuna nola lortu behar den adierazten du. 1. artikuluan arabera, honako hau hartzen da diskriminaziotzat: *“sexuan oinarritutako bereizkeria, bazterkeria edo murrizketa oro (...) politika, ekonomia, gizartea eta politikaren arloan eta arlo zibilean edo beste edozein arlotan”*. Giza eskubideei buruzko beste tratatu batzuk ez-bezala, Konbentzioa giza ugalketarekin zerikusia duten gaiez arduratzen da, eta sexuen arteko harremanetan kultura-alderdiek dituzten ondorioekin.

Konbentzioaren hirugarren zeregina giza eskubideen kontzeptuaren interpretazioa zabaltzea da, emakumeek beren funtsezko eskubideak erabiltzearen murrizketan kulturak eta tradizioak bete duten papera formalki onartzearen bitartez. Kultura eta tradizioa hainbat estereotipo, ohitura eta arautan adierazten dira, eta horiek emakumeen berdintasunerako bidean dauden muga juridiko, politiko eta ekonomiko asko sortzen dituzte. Harreman hori onartuz,



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Konbentzioaren hitzaurrean honako hau adierazten da: *“gizonaren eta emakumearen arteko erabateko berdintasuna lortzeko beharrezkoa da gizonak nahiz emakumeak gizartean eta familian betetzen duen paper tradizionala aldatzea”*. Horren ondorioz, Konbentzioko Estatu Kideek gizonen eta emakumeen jarrerako eredu soziokulturalak aldatzen lagundu behar dute *“sexuetako baten gehiagotasunaren edo gutxiagotasunaren ideian edo gizonen eta emakumeen funtzio estereotipatueta oinarrituta dauden aurreiritziak eta ohiturazko eta beste edozein motatako praktikak ezabatzeko”* (5. artikulua). Azkenik, Konbentzioaren xedapen guztiek adierazten dute bi sexuek erantzukizun berdinak izan behar dituztela familia-bizitzan, eta hezkuntzari eta enpleguari dagokionez eskubide berdinak izan behar dituztela, gogor egiten dute borroka eremu publikoa gizonezkoen mundu gisa eta etxea emakumearen eremu gisa defini nitzen dituzten kultura-ereduen aurka.

Nazio Batuek 1985ean Nairobín egin zuten emakumeen aurrerapenerako Konbentzioan, beste hainbat estrategiaren artean definitzen da komunikabideek funtsezko zeregina dutela emakumeen estatusak aurrera egin dezan, eta komunikabide desberdinetan emakumeen irudikapen estereotipatu eta esplotatzaileak ezabatzeko deia egiten du, publizitate-iragarkiak barnean hartuz. 1990. urtean, Nairobiko Estrategien Lehen Txostenean eta ebaluazioan onartu zen komunikabideetan irudi estereotipatuak iraunarazteak, bereziki gizonezkoen eta emakumezkoen rol tradizionalen gorapamenak, emakumeen berdintasunerako aurrerapena atzeratzen zuela, statu quo desberdinerako justifi kazioa ematen zuelako.

1995. urtean, Nairobiko Estrategien Bigarren Txostenean eta ebaluazioan adierazten da, besteak beste, komunikabideak gutxi erabiltzen direla emakumeek gizarteari egiten dizkioten ekarpen positiboak bultzatzeko. Eta adierazten duenez, komunikabideek eraikitako emakumeen irudiak ez badira ateratzen patriarkatuak historian zehar esleitu

dien zeregin estu eta mugatuetatik -ama, emazte eta sexu-objektu gisa-, ezinezkoa da gizarteak bere kultura-esanahiak aldatzea eta menpekoak izatea ez den beste estatus bat lortzea emakumeek. Dokumentu horrek garai hartan dagoeneko hedabideak aipatzen zituen 1995ean Pekinen egin zen IV. Konferentzian onartutako Ekintza Planaren hamabi area estrategikoen artean.

Pekingo Ekintzarako Planean azaltzen den helburu estrategikoetako baten arabera, emakumeen ordezkariak orekatua eta ez-estereotipatua sustatzeko premia dago. Plataforma tartean sartuta dauden eragile sozial guztientzat bideratuta dago: Gobernuarentzat, nazioarteko nahiz nazioko komunikabide-sistementzat, emakumeen aurrerapenerako nazioko erakundeentzat, GKEentzat eta komunikabideetako eta sektore pribatuko elkarte profesionalentzat; eta adierazten du neurri asko daudela estereotipazioari aurre egiteko, honako hau esaten baitu: *“nabarmena da informaziobideetan generoaren auziari arretarik ez zaiola eskaintzen, generoan oinarritutako estereotipoekin jarraitzen dutelako (...) ez dute eskaintzen emakumeen bizi-estilo desberdinen eta bilakatze-prozesuan dagoen mundu honetan gizarteari egiten dioten ekarpenaren irudi orekatua”*.

NBEk bezalaxe, Europar Batasunak kausaefektu erlazio bat ezarri du komunikabideetan emakumeen sarbide eta sustapenaren eta komunikabideetako produktueta emakumeen irudi zabalagoa eta ez hain estereotipatuaren artean.

Pekingo Ekintzarako Plataformaren ondorioz, EBko Kontseiluaren eta Estatu Kideetako Gobernuaren Ordezkarien 1995eko azaroaren 10eko Ebazpena argitaratu zen, emakumeek eta gizonek publizitatean eta komunikabideetan duten irudiaren tratamenduari buruzkoa. Ebazpen horretan adierazi zen publizitatean eta komunikabideetan sexuari lotutako estereotipoak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunari lotutako jarreretan eragina duten desberdintasunen alderdietako bat



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

direla.

“Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko estrategia marko komunitario baterantz” deitutako V. Ekintza Programak (2001-2005) honako hau adierazten du: *“Emakumearen irudi negatiboa edo estereotipatua iraunarazterakoan, bereziki komunikabideetan eta informazio- eta entretenimendu-kanal informatizatuetan, publizitatean eta hezkuntza-materialean, ez da eskaintzen ari emakumeen eta gizonen rol desberdinen irudi zehatza ezta errealista ere, ezta aldatzen ari den mundu honi egiten dizkioten ekarpenena ere”* eta horregatik honako hau adierazten du: *“beren adierazpen-askatasunaren kaltetan izan gabe, eta iritzi-sortzaile eta balioak modelatzeko tresna diren heinean, komunikabideek eta kulturaren industriak jendearen pertzepzioan estereotipo sexistak aldatzen eta gizonen eta emakumeen irudi objektiboa aurkezten lagundu behar dute”*.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako lan-planak (2006-2010) estereotipo sexistak ezabatu nahi ditu hezkuntzan, prestakuntzan eta kulturaren, lan-merkatuan eta komunikabideetan.

Aukera-berdintasunerako Plan Estrategikoak (2008-2011) adierazten du emakumeen irudi soziala sozializazio-prozesuan bere nortasunaren eraikuntzari zuzenean lotuta dagoela, eta prozesu horrek diferentzia handiak ezartzen ditu emakumeen eta gizonen artean. Hezkuntza ez-formalak funtsezko zeregina jokatzen du kultura sexistaren garapenean. Gizarte-antolaketa eta bere irudikapenek oraindik ere eredu androzentrikoari erantzuten diote, non sexu bakoitzari funtzio desberdinak esleitzeak gizarte-errealitatea zatitzeaz gain, hura hierarkizatu egiten duen, balio txikiagoa emanez femeninoa denari, maskulinoa denarekin alderatuz gero.

Estatuko testuinguruan, 3/2007 Lege Organikoaren 26.1 artikulua, tratu-berdintasunari eta aukera-berdintasunari buruzkoak, esanbidez aipatzen du agintaritzan

publikoek, beren eskumenen eremuan, bermatuko dutela printzipio hori emakumeen eta gizonen artean eraginkorra izan dadin sormen eta produkzio artistikoari eta intelektualari dagokionez ez ezik sormen hori hedatzeari dagokionez ere.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean botere publikoen jarduna antolatu eta bideratu behar duten printzipio orokorren artean, 4/2005 Legearen 3.6 artikulua ezartzen du sexuaren arabera rol eta estereotipo batzuk desagerrarazi behar direla, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri baitira eta horien arabera emakumei etxeko eremuaren ardura eta gizoni eremu publikoaren ardura izendatzen baitzaizkie, eta, gainera, balorazio eta aitorten ekonomiko eta sozial oso ezberdina eginez.

Hirugarrena.- Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak aldatu zuen Publizitateari buruzko 1998ko azaroaren 11ko 34/1988 Legearen 3. artikulua honako hau hartzen du bidegabeko publizitatez:

a) Pertsonaren duintasunari eraso egiten dion edo Konstituzioan onartutako balioak eta eskubideak, bereziki 4. ataleko 18. artikulua eta 20. artikulua aipatzen dituztenak, urratzen dituen urratzen dituen publizitatea. Ulertuko da honako hauek ere aurreko aurreikuspenean sartzen direla: emakumeak modu laidogarrian aurkezten dituzten iragarkiak, haien gorputza edo gorputzaren atalak partikularki eta zuzenean erabiliz sustatu nahi den produktuaz aske dagoen objektu soila bezala, edota emakumearen irudia gure ordenamenduaren oinarriak urratzen dituzten portaera estereotipatuei lotuta aurkezten duelako, Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko Lege Organikoak aipatzen duen indarkeria sortzen lagunduz.

b) Iruzzurrezko publizitatea.

c) Bidegabeko publizitatea.

d) Publizitate subliminala.

e) Produktu, ondasun, jarduera edo zerbitzu



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

jakin batzuen publizitatea arautzen duen araudian ezarritakoa urratzen duen publizitatea”.

Era berean, 25. eta 29. artikuluek eta Xedapen Gehigarriak, alde batetik, kontsumoagintaritzek, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteek eta Fiskaltzat herritarren interes kolektiboen eta zehaztugabeen defentsan duten zeregina aipatzen dute, eta, beste alde batetik, agintaritzek eta erakundeek duten zeregina emakumeen defentsan publizitate sexistaren kasuan.

3/2007 Lege Organikoaren 41. artikulua honako hau dio: Lege horren arabera portaera diskriminatzailea dakarren publizitatea legez kanpoko publizitatez joko da, publizitateari eta publizitate eta komunikazio instituzionalari buruzko legedian aurreikusitakoaren arabera.

4/2005 Legearen 26.2 artiku luaren arabera, *“debekatuta dago pertsonak, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen publizitate-iragarki oro egin, eman edo erakustea, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifi katu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere”*.

Illo horretatik, halaber, komeni da Europako Parlamentuaren 2008ko irailaren 3ko Ebazpena, emakumeen eta gizonen berdintasunean marketinak eta publizitateak duten eraginari buruzkoa, aipatzea. Ebazpen horretan, beste gai batzuen artean, honako hau esaten da: publizitatea eta marketina kulturaren isla dira, eta kultura sortzen laguntzen dute. Ebazpen hori bereziki sendoa da; izan ere, adierazten du generoan eta generoaren estereotipo modu orotan oinarritutako mezu diskriminatzaileak edo laidogarriak ematen dituen publizitatea oztopoa dela gizarte modernoa eta berdintasunezkoa sortzeko.

Publizitate sexistaren kasuak lantzerakoan, legedia anbigua da oso gutxi zehaztuta dagoelako. Legez kontrakoa ote den

ezartzeko, kasuistika balioetsi behar denez gero, egun dagoen araudiaren eta jurisprudentiaren arabera, balioesten ari garen kartela nekez etor daiteke bat legezko aginduekin; izan ere, agindu horietan eskatzen da zilegitasunik ezaren portaera bereziki larria izatea. Hortaz, alde batera utzi behar da azterketa honen xede den Durangoko Liburu eta Disko Azokaren 43. edizioa iragartzeko kartelaren publizitatea legez kontrakoa delako ideia. Hala eta guztiz ere, kartel horretan ikusten da emakumearen ikusezintasuna; izan ere, gizonezko irudi orokor baten bitartez egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ekitaldi handienaren publizitatea. Erabilera grafi ko horrek ez dio laguntzen kultura estereotipatutik berdintasunaren kulturarako aldaketa sozialari.

Azkenik, adierazi behar dugu Durangoko Liburu eta Disko Azokaren 43. edizioa iragartzen duen Kartelaren kasuan ez gaudela legez kontrako publizitatearen aurrean, ez baitago Publizitateari buruzko Legearen 3. artikuluan azaltzen den egoera bakar bat ere.

Laugarrena.- Durangoko Liburu eta Disko Azokaren 43. Edizioa iragartzeko kartelean azaltzen den emakumeen estereotipazioari lotuta.

“Estereotipo” hitzak (Lippman-ek erabili zuen lehen aldiz “Gure buruan dauden irudiak, errealitatearen eta guk errealitateari buruz dugun ideien artean tartekatzen direnak”, 1922), aukera kopuru handi baten artean sinbolo gutxi batzuk hautatzearen ondorioz sortzen den eta kolektibo bat ordezkatzeko duen irudi bati egiten dio erreferentzia. Estereotipoa, hortaz, talde zabal eta askotarikoaren ordezkaria da; sinboloen eta balioen eredu baten menpe dagoen ikuskera sinplifi katua, talde sozial oso baterako indibidualtasuna baliogabetzen duena. Halaber, kode ikusezintzat, ezkutuztat eta soilik ikuspegi kritikoarekin ikusi ahal izango dugun kodetzat hartzen da (Correa, RI, Gumán, MD eta Aguayed, JI “La mujer invisible. Una lectura disidente de los mensajes publicitarios”, 2000). Genero-estereotipoaren bitartez bere sexu-kondizioak



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

lotzen duen taldea osatzen duen pertsona ikusezin bihurtzen eta desitxuratzen da; horretaz gain, pertsona horren karikatura egiten da. Emakumeei buruzko estereotipoek gure gizarteetako balio patriarkalen defentsa eta gizonezkoen lidergoa galtzeko beldurra ezkutatzen dute (Farray Cuevas, Las diosas en el limbo mediático. Los estereotipos sobre las mujeres en la publicidad. 2006).

Gaur egungo gizarteetan publizitatea tekniken, komunikatzeko estrategien, erabileren, moduen eta testuinguruen multzoa da, pertsoneri zerbait edota zer edo zer egiteko komenentzia sinestaraztera bideratua. Publizitate-komunikazioaren bistako helburua honako hau da: iragarkiaren hartzailak iragarkian jartzea arreta, haren interesa piztea gauza, marka edo ideia baten inguruan, haren nahia sustatzea eta iragarritako produktua erostera bideratutako ekintza edo portaera sortzea hartzailarengan.

Durangoko 2008ko Liburu eta Disko Azokaren 43. edizioa iragartzeko kartelaren irudian euskal kulturaren estereotipazioa dagoelako argudioak garatzeko, Gerediaga Elkarteak aurkeztutako alegazio-idazkiari dagokionez, honako hau adierazi behar da: A) Irizpide artistikoak –5 lagunek osatutako epaimahai batek (4 gizon eta emakume 1) irizpide horien arabera erabaki du kartel hori dela, bere kalitateagatik, egokiena Durangoko azokaren publizitatea egiteko– subjektiboak dira. Gai horri dagokionez, esan behar dugu artea ez dela bera sortzen den gizarte- eta kultura-errealitatek bereizi behar. Horregatik, testuinguru soziokultural, geografiko eta denbora- arlokoan interpretatu behar da bere zentzuaren konplexutasuna ulertzeko.

Irudiaren irakurketan edo azterketan hiru esaldi daude: esaldi objektibo bat, elementu formalak zerrendatzeko; ulermen ikonografikoko fase bat, kontzeptua ulertzeko; eta hirugarren fase bat, interpretazio orokor subjektibo bat egiteko. Ildo horretatik, irudi batek erakusten duenaren arabera, irudi hori modu berean interpreta dezakete hainbat pertsonak, baina pertsona horiek guztiek modu desberdin batean konnotatu, hots, interpreta dezakete.

2008ko Durangoko Kartelaren kasuan, kartela osatzen duten elementuak bi motatakoak dira: zeinu grafi koak eta alfazenbakizkoak. Alfazenbakizko osagai horiek egiten duten ainguraketa-eginkizunak ez du uzten testuingururatzeko unibertsalik (2008ko abenduaren 5a, 6a, 7a eta 8a). Kartelak hiru elementu ikonografiko ditu: Txapela bat, betaurreko batzuk eta entzungailu moderno batzuk; elementu horiek guztiak antolatuta dauden modua kontuan hartuta, ematen du guztiak buru batean kokatuta daudela, elementu horien kokapen erlatiboa dela medio. Irudiak errealitatearen berregitea dira, nahiz eta analogikoki errealitatearekin erlazionatuta dauden, eta errealitatek bereizten dira analogikoki desberdina den errealitate bat osatzen dutelako. Komunikatzeko intentzioa eta zentzua duen errealitatea. Elementu isolatu horiek konposizio baten zati bihurtzen direnean mezuren bat grafi koki komunikatzeko asmoz, indibidualki irakurtzeko modukoak izateari uzten diote eta zentzu konplexu bat eramaten duten elementuak izaten hasten dira, eta elementuek zentzu horretan esku hartzen dute ikuslearen irakurketa-prozesuetan. Irudia orokorrean interpretatzeko fase horretan esan daiteke euskal txapela (euskal kulturaren sinbolo gisa) duen gizon baten irudia dirudiela.

H.G. Wells idazlearen “Gizon ikusezina” eleberrian oinarritutako “Gizon ikusezina azokan” lanaren izenburua egileak asmatutako leloa da, eta ikusezina izan nahi duen gizon horren irudiarekin jolasten du. Kasu honetan, paradoxikoki, emakumea da azaltzen ez dena. 2008ko kartelaren lehiaketaren oinarriek ez zuten zehazten edo ezartzen leloa aukeratzeko irizpiderik; hortaz, hasiera batean, edozein lelo edo izenburu izan daiteke baliagarri.

B) Euskal txapela tradizionala ez dela soilik gizonen osagarria eta gaur egun emakumeek nahiz gizonen erabiltzen duten osagarria dela dioen argudioari dagokionez, esan behar dugu txapela horren erabilera, kolorea eta buruan jartzeko modua euskaldunen nortasunaren adierazgarri bihurtu direla.



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Ildo horretatik, gogoratzea txapela klasiko horren erabilera, kolorea eta buruan janzteko era bilakatu dira euskaldunon nortasunezagarri. Euskal txapela beste antzeko janzki batzuekin alderatu nahi izan bada ere, berezko elementu desberdintzaileak ditu, hala nola: bere kolorea (tradizionala beltza eta urdin iluna izaten da), zapalak eta zabalak izaten dira, ez dute biserarik eta txapela inguratzen duen atal bertikala barrurantz tolestuta egoten da; horretaz gain, erdian beti txortena izaten du. Euskal gizonak ia ez du txapela buruan sartzeko, beste leku batzuetan, ordea, belarrietaraino sartzeko dute. Euskal txapela klasikoa atzerantz, aurrerantz, ezkererantz edo eskuinalderantz oker daiteke. Txapela hori da, jatorriak alde batera utzita, euskaldunen nortasunaren adierazgarri bihurtu dena.

Txapela klasiko hori, iraganean landa-eremuan gizonak erabiltzen zutela alde batera utzita, gaur egun landa-eremuko nahiz hiri-eremuko gizonak eramaten dute. Nagusiki adin jakin bateko gizonak normalean erabiltzen duten euskal jantzia da, nahiz eta gaur egun esan daitekeen belaunaldi gazteetako edo tarteko belaunaldietako ia inork ez duela erabiltzen ohiko jantzi gisa.



Egia da gaur egun txapela gizonak nahiz emakumeek erabiltzen duten osagarri estetiko delako, baina emakumeek ez dute Euskadiko gizonetako tradizionalek erabiltzen zuten moduan erabiltzen.

Bosgarrena.- Durangoko Liburu eta Disko Azokaren 43. Edizioa hedatzeko Gerediaga Elkarteak komunikabideetan aurkeztu duen publizitate-iragarkiak modu egokian eta

positiboan erantzuten dio euskal kulturaren irudi ez-estereotipatu bati. Iragarki horretan emakumeen eta gizonen hainbat proposamen azaltzen dira, erabilitako elementu ikonografiakoak aldatuz (betaurreko, kapela, eta belarritako motak) eta bere mezua honako hau da: *“Aurkitu Euskal Kulturaren aurpegi guztiak”*.

Ebazpena

Lehen.- D/60/2008 zenbakiko ikerketaespedientean aurkeztutako datu guztiak kontuan hartuta, Emakumeen eta Gizonen Defentsa Erakundearen ustez, Durangoko 2008ko Liburu eta Disko Azoka iragartzen duen Kartelaren 43. Edizioan egin den emakumeen ikusezintasuna ezin da sexuarrazioengatik diskriminaziotzat hartu.

Bigarrena.- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzailearen iritziz, Durangoko Liburu eta Disko Azokaren 43. Edizioa iragartzen duen kartelak beste elementu edo sinbolo batzuk, emakumeen ustezko ikusezintasuna kulturari saihestuko zutenak, erabil zitezkeen, eta ildo horretatik, honako GOMENDIO hau ematen du:

- Liburuaren eta Diskoaren Euskal Azokaren ondorengo edizioak iragartzeko Kartelaren Oinarrietan klausula bat gehitzea. Klausula horretan adieraziko da gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatu, babestu eta gorde behar dela, konnotazio maskulinoaren ikonoak erabiltzea saihesteko eta bi generoak erakutsiko dituzten edo sinbolikoki neutroak diren ikonoen erabilera sustatzeko.

- Epaimahaiko kideen osaera paritarioa izatea.

